

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELCIEGOKO UDALA

Finka honen errentamendu kontratuaren lizitazioa: Elciegoko 7 poligonoko 345 landa finka, C azpilurzatia, "Cerio" aurkintza, 9.500,86 metro koadro

Udalbatza honek, 2021eko martxoaren 26an egindako ohiko bilkuran, erabaki du Elciegoko 7 poligonoko 345 landa finka, C azpilurzatia, "Cerio" aurkintza, 9.500,86 metro koadrokoa, udalaren jabetza, errentan emateko kontratazioa, prozedura ireki bidez, hainbat adjudikazio irizpiderekin eta ohiko tramitazioaz, arautuko duten administrazio klausula berezien agiria onestea eta dagokion lizitaziorako deia egitea. Horren laburpena iragarki honetan argitaratzen da:

1. Kontratuaren xedea: Finka honen errentamendua: Elciegoko 7 poligonoko 345 landa finka, C azpilurzatia, "Cerio" aurkintza, 9.500,86 metro koadrokoa, mahatsondoak landatuta dauzkana, Elciegoko Udalaren jabetza.

2. Lizitazio oinarria: 1.333,92 euro urtean, edo hortik gora.

3. Kontratuen epea: Hamabost (15) urte, gehienez ere hogeitabi (20) urtera luza daitezke.

4. Adjudikazio irizpideak:

1. Prezioa: 65 puntu.

2. Ustiatzearen osaera: 30 puntu.

3. Ustiatzearen epea: 5 puntu.

5. Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.

6. Behin betiko bermea: kontratua adjudikatzen den zenbatekoa bider 20 (kontratuaren gehi luzapenaren urteak) eginda ateratzen den kopuruaren ehuneko 5.

7. Espedientea aztertzea: Kontratatzailaren profilean, Euskadiko kontratazio plataforman kokatuta, Elciegoko Udalaren bulegoetan eta udalaren web orrian (www.elciego.es).

8. Eskaintzak aurkeztea:

Lekua: Elciegoko Udalaren erregistro orokorrean, edo bestela urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) 16.4. artikuluan adierazitako edozein lekutan.

Epea: Hamabost (15) egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ordutegia: 8:00etatik 14:30era, astelehenetik ostiralera, egun baliodunetan.

9. Kontratatzailaren betekizun espezifikak: administrazio klausula berezien agirian ezarritakoak.

10. Eskaintzak irekitzea: Eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egun baliodunetan, 13:00etan, udaletxean.

11. Eskaintza eredia eta agiriak: lizitatzailerek administrazio klausula berezien agirian jasotzen den ereduaren arabera aurkeztu beharko dituzte eskaintzak, eta bertan zerrendatutako agiriak aurkeztuko dituzte.

Elciego, 2021eko martxoaren 29a

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE